

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1740

EBAZPENA, 2024ko martxoaren 18koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baita «Mundakako biaduktua konpontzeko eta babesteko eraikuntza-proiektua».

2020ko abenduaren 4an, Euskal Trenbide Sareak P20021275 justifikazio-espedita hasi zuen, 2020ko abenduaren 30ean onartutako «Mundakako biaduktua konpontzeko eta babesteko eraikuntza proiektua (Amorebieta-Bermeo lineako 27/381 KP)» idazteko zerbitzu-kontratuaren lizitazio publikoa egiteko.

2021eko otsailaren 25ean, Euskal Trenbide Sareko kontratazio batzorde delegatuaren ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, aurrez deskribatutako lizitazioan izandako eskaintzarik onena onartu zen, hain zuzen ere TYPSAk egindakoa.

2021eko apirilaren 13an sinatu zen kontratua.

ETSk mantentze-lanetako langileek oinarritzko ikuskaritza-lan nagusiak egin dituzte, eta, horien ondoren, konpondu beharreko zenbait akats antzeman dituzte. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da biaduktua konpontzeko eta babesteko alternatibak ikuskatzea eta baloratzea. Hauek erredakzio taldearen ikuskapen nagusiaren ondoren egiaztatu dira.

Honako hau da proiektu honen irismena:

- Zubia olatuetatik babesteko egitura.
- Lehendik dagoen zubia konpontzea.

Proiektatutako obra Amorebieta-Bermeo lineako Mundakako biaduktua konpondu eta babestean datza, olatuen bultzada sendoen ondorioz kalteak izan dituelako.

Hori dela eta, denboraleetatik babestuko duen hormigoizko dike bat egitea proiektatu da, biaduktua konpontzeko lanei ekin aurretik. Mikropiloteen bidez zimendatzea proiektatzen da.

Zubia non dagoen kontuan hartuta, eta dikea egiteko hormigoia erabili behar denez, hodi bat jarriko da, BI-2235 bidetik kalaraino ponpatzeko. Hodi hori behin-behineko elementua izango da, eta ahalik eta eragin txikiena izango du ingurunean. Dikearen lanak amaitu ondoren, kendu egingo da.

Era berean, dikea eraikitzeko erabiliko den materiala behin-behinean pilatzeko plataforma bat egitea aurreikusten da, baita beharrezko makinak ere. Plataforma hori biaduktuaren hegoaldean instalatuko da, kalaren barruan, kalan deskargatutako eta aurrefabrikatutako gainazaleko zimenduetan bermatuta. Era berean, zapata horiek kalaren lur naturala induskatu gabe jarriko dira.

Behin dikearen obra amaituta, plataforma eta haren elementu guztiak eraitsi eta kala horretatik kenduko dira. Zapata horiek ETSren tren-plataforman egingo dira, Bermeoko geltokiaren ondoan, eta, ondoren, trenbidez kalara eramango dira, garabi baten bidez deskargatuta.

Deskargatu beharreko makinak eta materialak tren-makinak bultzatutako tren-plataformaren bidez garraiatuko dira, betiere gauez, katenaria moztuta.

2024ko apirilaren 11, osteguna

Dikearen obra amaitu ondoren, biaduktua konponduko da, zubiaren zimenduetan bermatutako aldamioren bidez, dike berriaren babesean. Aldamio horiek konponketen materiala biltzeko balioko dute, eta honako konponketa hauek egingo dira, nagusiki: zuloguneak lehengoratzzea, hormigoizko elementuen karbonataziotik babestea, landaretza eta gainazal kaltzifikatuak kentzea, junturak berdintzea eta balastoa babesteko hormatxoak berreraikitzea, eskudelak ezarritz.

Azkenik, eskailera bat jarriko da dagoen eskalaren ordean.

Obrak egiteko hamazortzi (18) hilabeteko epea zehaztu da.

Proiektua egikaritzeko aurrekontua milioi bat bederatzehun eta laurogeita hamabi mila sei ehun eta hirurogeita hamazazpi euro eta hogeita hamalau zentimokoa (1.992.677,34) da. Horrek esan nahi du lizitazioarako oinarritzko aurrekontua bi milioi zortzihun eta hirurogeita bederatzita mila berrehun eta berrogeita hamasei euro eta hamar zentimokoa (2.869.256,10) dela, BEZa barne; eta Administrazioak horren berri izateko aurrekontua: bi milioi hirurehun eta hirurogeita hamaika mila berrehun eta laurogeita sei euro eta hiru zentimokoa (2.371.286,03), BEZik gabe.

Euskal Trenbide Sareko (ETS) Zerbitzu Teknikoek egiaztatu dute proiektu honek bere xedeari erantzuten diola eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak eskatutako baldintzak betetzen dituela, kontrata bidez egikaritzeko behar diren alderdi nahikoak jasotzen baititu; halaber, maila formalean berrikusi du proiektua eta berresten du bete egiten duela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa, maila formalean, beharrezko dokumentuak eta indarrean dagoen araudia sartzeari dagokionez, edukiari, sinadurei eta alderdi formalei, beharrezko kalkulu-oinarri eta -hipotesiei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 233.1 artikuluan zerrendatutako edukiari dagokienez.

Organo honek eskumena du Gobernu Kontseiluari erreserbatuta ez dauden trenbide sareko proiektuak egiteko eta onartzeko, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 16.2 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta oro har aplikatu beharrekoak ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– «Mundakako biaduktua konpontzeko eta babesteko eraikuntza-proiektua» onartzea. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua, BEZa barne, bi milioi zortzihun eta hirurogeita bederatzita mila berrehun eta berrogeita hamasei euro eta hamar zentimokoa (2.869.256,10) da, eta obrak egiteko epea hamazortzi hilabetekoa (18) izango dela aurreikusi da.

Bigarrena.– Eraikuntza-proiektu hau onartzeak berekin dakar obrak onura publikokoak edo interes sozialekoak direla deklaratzeko, okupatzeko beharra adieraztea eta dagokion eraikuntza-proiektuaren beraren eranskinean zerrendatuta dauden erasandako ondasunak eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla adieraztea.

Ebazpen hau ez da behin betikoa administrazio-bidean, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Idazki hori organo honi edo Azpiegitura eta Garraioen sailburuordeari bidali beharko zaio.

2024ko apirilaren 11, osteguna

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi (2) hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien aretoan, hargatik aldez aurretik errekerimendua egitea eragotzi gabe, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehaztutako moduan eta epean.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko martxoaren 18an.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.